

## 8. KOSTUAK

Gure proiektuak izango duen kostu garestiena makina bera izango litzateke teknologia oso berriekin landuko dugulako makina. Gainera, lokalaren ubikazioarengaitik (Durango erdialdean topatzen saiatuko gara), errenta garestia izango da. Hasiera baten ez dugu inor kontratatuko baina denbora pasa ahala jende kontratatzea da gure idea eta horrek beste gastu bat suposatuko du.

Gure negozio ereduaren barne kostu handienak, makina erostearen inbertsioa izango da (finkoa eta behin), eta aldi berean lokalaren errenta ordaintzea (finkoa eta hilero). Azkenik, pintxoak erostea (aldakorra eta hilero).

Gure enpresak beharko dituen baliabide garestienak lokalaren alokairua eta makina izango dira. Jarduera garestienen alorrean, pintxoak erostea eta makinaren erosketa sartuko ditugu, pintxoaren garraioa ez aldiz, gure kabuz banatuko ditugulako.

Hasieran pintxoak bizikletarekin banatuko ditugu baina empresa ondo badoa furgoneta bat alokatzea da gure ideia eta horrek beste kostu bat suposatuko du.

Hurrengo taulan hasiera batean enpresak izan ditzakeen gastuen estimazio bat erakusten dizuegu:

Gastua:	Diru kantitatea:
Makina (Finko)	300€
Alokairua (Finko)	750€
Mantenua (Aldakor)	50€
Marketing (Aldakor)	150€
Inpostuak (Finko)	50€
Aseguruak (Finko)	30€
Pintxoak (Aldakor)	1000€
<b>TOTALA</b>	<b>2330€</b>

